

AZPEITIA

GUKA



**IRISTEAR DA
MANTANGORRI**


**ONDO PASATU
FESTAK!**

Azpeitia
Denontzat




Umeentzat denborapasaK

1 DOMINOAN




Marraz itzazu
falta diren
irudiak, domino
zati honek
zentzua izan
dezan.

3 Margotu



2 Labirintoa





Iritzia

Ainhoa Alberdi

Ez naiz Sanjuandegikoa, baina...

Ni ez naiz Sanjuandegikoa, baina bertakoa sentitzen naiz. Lanaz gain, lagunak han ditut, eta eguneroko bizitza ere han egiten dut. Horregatik, Sanjuandegiko festak oso bereziak dira niretzat.

Jende gutxi jakingo du, baina Sanjuandegiko festak San Joan jaietan egin ohi ziren. Urrestillako eta Oñazko festekin bat egiten zuten, ordea, eta beste festen arduradunek eskatuta, ekainaren hasierara mugitu zituzten.

Ordutik, ekainaren lehenbiziko asteburuan jai giroan murgiltzen da auzoa. Gehien gustatzen zaidana da Sanjuandegiko festek udari hasiera ematen diotela; herritar guztiak gogoz ikusten ditut, gustura, eta lana egiten dutan tabernako barraren atzetik poztasun hori nabaria izaten da.

Nabaria da, era berean, azken urteetan auzoko festek izan duen bilakaera. Duela 40 urte baino gehiago, festak ospatzen hasi zirenean, diru laguntzarik ez zegoen, eta auzotarrak etxez etxe joaten ziren laguntza eske. 40 urte geroago, Sanjuandegiko festak herritarren gustukoenetarikoak

bihurtu dira, gero eta ekitaldi gehiagorekin eta euskara oso presente dela.

Urtez urte, gero eta indar handiagoa hartzen joan dira auzoko festak. Hori guztia festa batzordearen lanari zor zaio, eta eskertzekoa da. Izan ere, badaikit astean behin biltzen direla, auzoarentzat eta auzotarrentzat ahalik eta ekintza ederrenak antolatzeke helburu bakarrarekin. Festak prestatzerakoan, adin tarte guztietako herritarrak izaten dituzte kontuan, eta ezkutuko lan asko egiten dute, inork nahi ez dituen lan gogorak ere bai; adibidez, txosnen muntaketa. Bejondeizuela!

Ezin dut ahaztu festan aktiboki parte hartu nuen urte hura ere. Duela hamabi urte izan zen. Sanjuandegi beti izan dut auzo kutuna, eta nire afizioak

ere baditut, herri kirolak, adibidez. Hala, betiko amets bati heltzea erabaki nuen: auzoko festetan zerbait berezia egitea. Hasiera-hasieratik laguntza handia jaso nuen lagunena eta festa batzordeko kideen partetik. Harri jasotze erakustaldia prestatu nuen denbora luzez (sasoia ere gaur egungoa baino hobeagoa nuen), eta saioa egin nuen festen baitan. Oso gustura egin nuen zerbait izan zen, eta oso pozik gelditu nintzen emaitzarekin. Oso egun polita izan zen, niretzat behintzat, eta inoiz ahaztuko ez dudana oroitzapena da.

Mantangorriren festen inguruko pena bat ere badut: Zumaian edo Beasainen bezala repetiziorik ez egitea, edota bi asteburuko festak ez izatea Sanjuandegikoak.

Txantxak alde batera utzita, eta amaitzeko, azpeitiarrak eta inguruko herrietako bizilagunak festez goatzera gonbidatu nahi nituzke. Dozenaka ekitaldi aurkituko dituzte, asteburuan zein aste barruan, helduentzat, umeentzat, kultur arlokoak, kirol ekitaldiak... Besoak zabalik hartuko ditugu, eta ziur nago oso ondo pasatuko dutela.

Ez naiz Sanjuandegikoa, baina...

Besoak zabalik hartuko ditugu, eta ziur nago oso ondo pasatuko dutela

Urtez urte, gero eta indar handiagoa hartzen joan dira auzoko festak



adats
ileapaindegia
estetika

ONDO PASATU JAIK!

Salbe auzunea 32 behea
20730 AZPEITIA
adats azpeitia

Telf. 943 81 39 90

AITZAKI
KIROLAK

ONDO PASATU JAIK!

Jose Antonio Agirre Plaza 4
943-15 07 38 - AZPEITIA

Julio Urkijo Hiribidea 36
943-53 27 70 - AZKOITIA

ONDO PASATU FESTAK!

ALABIER
ITURGINTZA

Urbitate 1 behea 943-81 11 79 • linterneria@alabier.com

a
anare
ile-apaindegia

ondo pasatu auzoko festak!

Barrenetxe 7
943-1515 53
AZPEITIA

INTXAUSTI

Salbe 33 • AZPEITIA • 943-81 04 89

Ondo pasatu jaiak!



«Sanjuandegiko festek bizia ematen diote auzoari, eta hori da garrantzitsuen»

Eñaut Kerejeta eta Iosu Merino

XJ Auzolanean taldeko kideak

Hilabeteetako isileko lanaren ondoren, berriz ere Mantangorri ikur duten festez goatzeko aukera izango dute azpeitiarrek. Aurtengo egitarauak jasotzen dituen berrikuntzak eta nabarmentzekoak zeintzuk diren azaldu dute XJ Auzolanean taldeko kideek.

Festak berrikuntzekin datozela aurreratu duzue. Zer nabarmenduko zenukete?

EÑAUT KEREJETA: Aurtengo egitaraua, orokorrean, urteroko antzekoa da. Egia da, ordea, urtero jasotzen ditugula auzotarren, herritarren eta eragileen aldetik proposamenak, gu beti horiek entzuteko prest izaten baikara. Horrela, aurtun, adibidez, zumba saioa arratsaldean eskaintzeko ideia helarazi zigun Regla Hernandez irakasleak, umeak zein adinekoak bilduko zituen saio parte-hartzailea nahi zuela egin. Igande arratsaldean herria kirolen aurretik tarte bat genuela ikusirik, hor sartzeara erabaki genuen.

IOSU MERINO: Bestetik, Triki-free emanaldia izango dugu berrikuntza gisa. Trikiti txapelketen formatu tradizionaletik irten, eta berrikuntza batzuekin iritsiko da eta formatu berri batean. Polita izango delakoan gaude.

Sanjuandegiko kanta moldatuta ere ateratu duzue.

E.K.: Aurtengo spotak Mantangorriren bilakaerari erreposoa egiten dio, urte hauetan guztietan auzoaren alde lanean ibili diren guztiak omenduz, eta horretarako Sanjuandegiko kanta birmoldatu dugu, Laketa aldearen eskutik. Horretaz gain, beste sorpresa bat ere gordeta daukagu, eta herritarrei gustatuko zaiela uste dugu.

Makina bat bider entzungo den abestia izango da, beraz, aurtengo jaietan.

E.K.: Seguruenez, bai.

Urtero bezala, Ume Egunarekin hasiko dira festak. Zer nolako harrera izan du?

I.M.: Duela bi aste zabaldu genuen izena emateko aukera, eta 300 haur inguruk eman dute izena. Aurtun, begirale kopuruan izan dugu hazkunde nabarmena, izan ere, gutxi gorabehera 70 izango dira, eta animatu diren gazteei eskerrak eman behar dizkiegu. Egunari dagokionez, urteroko antzekoa izango da, goizean gurasoek

umeak utziko dituzte eta jolasak egingo dituzte, ondoren bazkaria izango da, eta amaitzeko mago baten ikuskizuna. Ea eguraldi ona egiten duen eta egunaz goza dezaketen.

Sei eguneko egitaraua izango dute herritarrek, ekitaldiz beteta. Lan handia al da hori guztia prestatzea?

I.M.: Lan ikaragarria da, batik bat, denbora aldetik; ezin dugu bi hilabete lehenago hasi antolaketan, askoz lehenago egin behar izaten ditugu gauzak. Kontzertuak lotzea izaten da zailena.

E.K.: Bai, kontzertuak lotzen, adibidez, azaroan hasi ginen. Urtero legez, ezezko dezentente jaso ditugu, eta urtarri-



«Iaz, adibidez, inoiz ikusi dudana jenderik gehiena bildu zen auzoan, karpaleporaino beteta»

lean hasi ginen zehazten. Gero, egitarauaz gain, aparteko lan asko izaten dugu; egitarauan zer dagoen begiratzen joaten gara, eta festak gerturatzen ari diren heinean, egin beharreko eskaerak egiten ditugu.

Lagun asko al zarete lan horiek guztiak egiteko?

I.M.: Aurtun inoiz baino gehiago izan gara. Orain arte hamar lagun inguru aritzen ginen, edo gutxiago; baina, aurtun, 15-16 urteko gazte ugari sartu dira taldean.

E.K.: Festak antolatzeke bilerak irekia egiten dugu urtero, eta aurtun hamar gazte berri azaldu dira. Guretzat pozgarria da hori; izan ere, festetarako laguntzaz gain, atzetik erlebo dagoela ikusi dugu.

Sanjuandegiko festek azken urteetan hartu duten indarra eta ospea ikaragarria da. XJ Auzolanean taldea horren jakitun da, ezta?

E.K.: Harrera ona beti izan dute festek, baina egia da azkenaldian gero eta gehiago ari garela antzematen. Azpeitian bertan ere erreferentziazko festak dira, eta jende askok esaten du auzo bateko jaiak izateko oso onak direla. Herritik kanpo duten oihartzuna ere handia da: Donostiatik edota Gasteiztik etortzen da jendea, batzuek autobusak ere antolatzen dituzte etortzeko. Gero eta jende gehiago eta gero eta urrutiagotik etortzen da.

Posible al da horrelako arrakasta duten festak hobetzea?

I.M.: Zaila da, batik bat, horrelako ospea hartzen dutenean. Auzo bat izanda, gainera, egitarauaren aldetik ekitaldiak mantentzen saiatzen gara, ahalginetik handiena kontzertuak lotzen eginda. Iaz, adibidez, nik inoiz ikusi dudana jenderik gehiena bildu zen auzoan, karpaleporaino beteta. Guk geuk ere izugarritzko lan pila izan genuen dena aurrera eramaten. Izugarritzkoa izan zen! Beraz, gauzak horrela daudela, eusten saiatu behar gara.

E.K.: Egitarauaren aldetik ahalik eta anitzena eta zabalena izan dadin saiatzen gara: umeentzat, helduentzat, kirola, kultura, musika... Sanjuandegikoak ez dira parrandarako jaiak soilik, auzoari bizia ematen dion festak dira, eta hori da garrantzitsuena.

Festen aurretik eta festa egunetan lan asko izaten duzuela aurreratu duzue, baina gozatzeko tarterik hartzen al duzue?

I.M.: Esan ohi den bezala, ahal dena...

E.K.: Hartzen dugu tarte horretarako ere, ez nahi bezainbeste, baina tira...

I.M.: Aprobetxatzen dugu ditugun tarteak.

E.K.: Azkenean, parrandan egonda ere, burua erne izaten duzu, beti gertatzen baita zerbait. Hala ere, asteazkeneko bertso afaritik hasten gara gozatzen.

COVIRAN
ONDO PASATU JAIK!

Salbe auzoa 22 - Azpeitia



50 urte
zurekin

La salve Nº 11 Bajo
20730 Azpeitia
943813298
eizaguirrebeatriz@gmail.com



Euskal Herria Kalea 34 • Tel.: 943 15 16 40
Larrialdiak: 688 69 29 51



ERROTAUNDI
Okindezia
gozatu auzoko festez!

Euskal Herria Kalea 34 • 943-81 61 79



Ondo pasatu festak!
Euskal Herria Kalea 33
943-81 23 88

GOI ATZ
ILEAPAINDEGIA

sabe auzueña 36
20730 azpeitia
943-81 04 08

ONDO PASATU FESTAK!

ondo pasatu festak!

GU

Urbite 4
AZPEITIA
943-81 03 08



inka
gozotegia

Ondo pasatu festak!
Euskal Herria 31 · Azpeitia · 943-81 39 47

Jim Clark
TABERNA

ONDO PASATU FESTAK!

Euskal Herria Kalea 33
943-08 00 89



Musikaren ateak zabaltzera dator Triki-free

Aurtengo festen egitarauan herritarrek ez dute trikitilari gazteen txapelketarik aurkituko. Lehiaketa kutsua alde batera utzi, eta emanaldi berezia prestatu dute XJ Auzolanean taldeak eta Trikigirok: Triki-free. Sormenez eta berrikuntzaz beteriko hitzordua izatea espero dute.

Hutsik egiten ez duen hitzordua izaten du trikitiak Sanjuandegiko festetan. 2013az geroztik, XJ Auzolanean taldeak eta Trikigirok elkarlanean antolatu izan dute Trikitilari Gazteen Txapelketa. Aurtengo txapelketa hamargarren urtea beteko lukeenean, ordea, berrikuntza nagusi batekin iritsiko da trikitiaren festa.

Izan ere, txapelketa izatetik

emanaldi izatera igaroko da aurtengo jaietako hitzordua. Horrela aurreratu dute antolatzaileek, formatuak aldaketan baten beharra zuela arrazoituta: «Duela bederatzi urte hasi ginen gazteen trikiti txapelketa antolatzen, eta azken urteotan ikusi dugunez, nahiz eta Azpeitian osasuntsu eta gogor heldu dion, formatu hori gainbehera joan da Euskal Herrian. Gero eta txapelketa gutxiago antolatzen dituzte, eta parte-hartzaileak ere gutxituz doaz. Horren

aurrean zerbait egin behar genuela pentsatu genuen, susperraldi bat eman», azaldu du Haritz Garmendia Trikigiro elkartearen kidea.

Horrela, buruari eragin, eta formatu berritzaile batekin probatzea erabaki dute: Triki-free.

Baina zer da Triki-free?

Guztira zazpi bikotek parte hartuko dute emanaldian, «horietako asko aurreko txapelketetan egon izan direnak, gaine-



**JOSTALDI
KIROLAK**

**ONDO
PASATU
JAIK!**

Euskalerria, 33 • 943-15 16 39
www.jostaldikirolak.com

Kantoi
TABERNA

Ondo pasatu festak!

Salbe Auzoa, 15
943-04 75 46

LAGUNAK

Urbite 7 behe • AZPEITIA
943-81 37 87
www.lagunaksl.com • elagunak@gmail.com

LASA
GOZOTEGIA

Ondo pasatu festak!

Salbe Auzoa 14 • AZPEITIA • 943-81 25 39

Loiola

Ile-apaindegia

Ondo pasatu festak!

943-90 24 58

Iazko Trikiti Txapelketako parte-hartzaileak.

ra», eta zortzi minutu izango dituzte aurrez prestatutako sorkuntza bat eskaintzeko. Antolatzaileen asmoa da sormena ardatz gisa hartuta, kultur sortzaile batek dituen dimentsio desberdinak aztertzea; beraz, telebista pantaila bat edota musika instrumentu desberdinak erabiltzeko aukera izango dute. «Soinuak eta panderoak egon beharra izango dute, baina gaitzazko guztia libre izango dute. Batzuek, agian, aspaldiko kanta bat berreskuratu dute; beste batzuek, gustuko trikiti pieza joko dute; eta akaso egongo dira beste musika tresna batzuk erabiltzeko hautua egiten dutenak ere. Ez dakigu zer irtengo den, baina trikitia mundura libre zabaltzea izango da, euskaratik eta euskaraz egindako sorkuntzekin», adierazi du Garmendiak.

Aurrez inon egin edo probatu gabeko formatua dela onartu

du Trikigiroko kideak. «Ezin dugu jakin zer irtengo den, nola joango den, baina lanketa baten ondorioa izan da. Azkenean ezagutzen ditugu Trikiti free emanaldiko parte-hartzaile guztiak, gazteak dira gehienak, eta esperimendu nahi genuen. Proba bat da, denak animatuak ikusi ditugu formatu berrirako, eta ea ondo irteten den, aurrerantzean ere horrela jarrai dezan».

Trikitia «anitz» dela uste du Garmendiak, eta anitzasun hori baliatu nahi izan dute formatu berria proposatzeko orduan. «Anitzasun horren baitan askatasuna emango zaie parte-hartzaileei nahi dutena egiteko, free edo askatasun hori gustuko dutenera zabaltzeko, azken joera diren musika estiloetara, adibidez. Ateak irekita dituzte, baina, aldi berean, gure galbaketatik pasatu beharko dute, euskaraz eta trikitiaren

aberastasunarekin. Izan ere, trikitia barrutik ezagutuz gero, ez da forma batekoa bakarrik, forma ugari ditu, eta formatu honetan trikitiaren forma klasikoa gazteen ikuspegi berriekin uztartu nahi dugu».

Elkarlana

Trikifreek zer emango duen ez dago aurreikusterik, baina argi dago trikitiaren eta Sanjuandegiren arteko harremanak orain artean bezain estua izaten jarraituko duela. «Zerbait aitortzeko badugu, XJ Auzolanean taldearen laguntza da. Azpimarragarria da jasotzen dugun babesa; kide gazteek txapelketetan parte hartu izan dute, aurtengo bikote bat ere festa batzordetik dator... Urte luzez izan dugu harremana, eta harreman horrekin jarraitzeko modu egokia izan daitekeela uste dugu aurtengo formatua. Ea horrela den!», amaitu du.

LOPENE
harategia

Urbitarte 3 behea
943-81 00 23
AZPEITIA

ONDO PASATU JAIK!





NEREA ARANBARRI
OSTEOPATIA ZENTROA

ONDO PASATU FESTAK!

Euskal herria, 34 - behea • AZPEITIA
644 45 75 36 • nerearanbarri@gmail.com

Ongi Etorri
J A T E T X E A

Ondo pasatu festak!

Salbe auzunea 21 • 943-15 08 69



Osinaazpi
Ondo pasatu festak!

Jose Antonio Agirre plaza 6-7 • AZPEITIA
943-02 68 60
www.osinaazpi.eus • info@osinaazpi.eus



Rocha's Chopper
Ondo pasatu jaiak!

Urbitarte auzoa 8 behea • AZPEITIA

'Gora Xanjuandei!' festen abestia

2 010 urtea zen mantangorri handi bat azaldu zenean Sanjuandegiko auzoan. Maskota berria auzoko kaleetara atera zen lehen-dabizikoz, festak alaitzeko asmoz, eta hori gutxi ez, eta abestia ere egin zioten.

XJ Auzlaneaneko garaiko ki-deek idatzi zituzten hitzak, eta

kalejirako abesti herrikoi batean txertatu zituzten. Doinu horiek auzoko bazterrak girotu zituzten, eta orain, 14 urte geroago, abestia berrituta egin dute.

Izan ere, Laket taldeak abestia grabatu du, Azpeitiko Dinamoia eraikineko Soinuaren Eremuan. XJ Auzolanean taldeak abestia entzungai du da-

goeneko bere Spotify profilean, eta Sanjuandegiko festen baitan izaten duten urteroko kontzertuan joko dute.

Laket taldeak ez ezik, Malakias DJ ezagunak ere kantaren bertsioa egin du. XJ Auzolanean taldeak bi bertsioak hartu eta 2024ko spota osatu du azken urteotako ibilbidea gogora ekarriz.

Ikusi aurtengo spota



GORA XANJUANDEI!

Gora Xanjuandei gora

Gora Xanjuandei

Xanjuandei gora! (x3)

Horra amona mantangorri

Leihotik goitik behera

Azkar jeisten ez baldin bada

Xanjuandeiko festak ospatzen hasiko gara





Indarkeria matxistari aurr egiteko karpa, duela bi urte, Sanjuandegin. AZPEITIKO UDALA

Beldurrik eta erasorik gabeko festen alde

Iaz martxan jarritako ekimenari segida emanez, berriro ere etxeratze kolektiboak antolatu dituzte Itaiak eta XJ Auzolanean taldeak festetarako. Erasoen aurkako protokoloa ere jarriko dute martxan txosnagunean.

Iaz egin zuten bezala, Urola Erdiko Itaiak eta XJ Auzolaneanek etxeratze kolektiboak antolatu dituzte elkarlanean Sanjuandegiko festetarako. Horrela, maiatzaren 31n, ostiralez, eta ekainaren 1ean, larunbatez, eskainiko dute zerbitzua. Orduak oraindik zehaztu gabe dituzten arren, iazko ereduak jarraitzeko asmoa dute, eta egunean bizpahiru txanda egingo dituzte.

Joan den urtean abian jarritako ekimena da etxeratze kolektiboena, eta antolatzaileek balorazio positiboa egin dute: «Agian ez zuen sekulako jendetzak parte hartu, baina ekimenak jakinmina sortu zuen herrian, eta harrera ona izan zuen. Ohitura falta ere badago horrelako zerbitzu bat erabiltzeko, azkenean, etxerako bidea egiteko errazagoa baita lagunekin egitea edo familiako norbaiti deitzea, ezezagunekin egitea baino. Iazkotik ikasi duguna hori da hain zuzen ere, gurasoengana iri-

tsi beharra dugula», agertu du Itaiako eta XJ Auzolaneaneko kide den Onintza Kerejetak.

Gurasoengana iristeko asmoz, hainbat bide jorratu dituzte aurten, hala nola inkesta bat zabaltzeko gaiaren inguruan dagoen interesa ezagutzeko eta ekimenaz informaziorik baduten jakiteko, eta herriko portaletan kartelak jarri dituzte informazioarekin. Gainera, batzar irekia egin dute informazioa helarazteko eta herritarrek izan ditzaketen zalantzak argitzeko asmoarekin. «Jendeak ekimena gertuagokoa senti dezan, ezin bestekoa iruditzen zaigu horien parte hartzea», azaldu du Itaiako eta XJ Auzolaneaneko kideak.

Antolatzaileen ustetan, etxeratze kolektiboen beharra benetakoa da tamalez. «Gure bizipenetatik eta gazteekin hitz egindakotik abiatuta, festetan beldur gehien etxerako bidean sentitzen da. Une horietan seguru sentitzeko modua dira etxeratze kolektiboak, nahiz eta ja-

kin badakigun ez direla irtenbidea. Hala ere, eskaini beharreko aukera zela ikusten genuen, eta modu horretan, etxera seguru joango direla bermatu».

Protokoloa

Txosnagunerako protokoloa ere prestatu dute. «Badakigu jai giroan indarkeria matxista kasuek gora egiten dutela: ukituak, iruzkin lizunak, etxera bidean jarraipenak... Hori dela eta, erasoen aurkako protokoloa jarriko dugu berriro martxan», azaldu du Kerejetak.

Besteak beste, telefono zenbaki bat jarriko dute eskuragarri Sanjuandegiko festek irauten duten bitartean: 688 69 93 70. «Edozer gauza gertatuz gero, telefono horretara dei dezakete, eta gertatutakoaren aurrean jarraitu beharreko pausoak ematen hasiko ginakete. Hala ere, ez genduke nahi protokoloa aktibatzeke arrazoirik izatea; festak ondo eta gertakaririk gabe igarotzea da beti helburu nagusia», adierazi du Kerejetak.



SOMOZA ARRANDEGIA

Ondo pasatu jaiak!

Sanjuandegi auzunea, Salbe 21
943-81 39 91 • AZPEITIA

Mendata

ESTUDIO GRAFIKOA



Urbitearte 8 - beheak | T. 943 38 84 81

WEB DISEINUAK

WEB MANTENUA

KARTELAK

FLYERRAK

LOGOAK

SARE SOZIALAK

MENUAK

GONBIDAPENAK

INPRIMAKETAK

ESKANEAK

...

mendatastudio@gmail.com

izaro

Kafe Bar

Ondo pasatu jaiak!

Salbe auzoa 34 - Azpeitia

K
URKIZU

LANEKO ERROPAK

SALBE 24
20730 AZPEITIA

943 02 58 61
info@urkizu.net

650 75 61 79

Ondo pasa XANJUANDEIKO festak!!

ZUFOIN
PODOLOGOA AZPEITIA

Julen Albizu Aztiria
Podologo 313 Kol. Zkio.

943-81 00 72 • 608 83 86 37



Regla Hernandez eta Lara Idoeta, ikasle gazteenekin.

Zumba, denentzako kirola

Festen hondarrean, herritarrak dantzan jarri nahi dituzte Regla Hernandez eta Lara Idoeta zumba irakasleek. Adin guztietako herritarrentzat moduko saioa ekainaren 2an izango da, 16:30ean hasita, Jose Antonio Agirre plazan.

Sanjuandegiko festak Azpeitiko festarik parte hartzaileenetakoak dira, eta hori da, hain zuzen ere, Regla Hernandezek eta Lara Idoetak zumba saiorako nahi dutena ere: parte hartzailea izatea. «Adin guztietako pertsonen parte har dezakete bertan, txikienek zein 100 urtekoek, edonork egin dezake. Izan ere, kirol modalitate bat da, eta ez da beharrezkoa dantzan egiten jakitea edota forma fisiko onean egotea. Ez da ezer berezirik behar, gogoz egotea eta musika gustatzea. Horiek dira

beharrezko bi gauza bakarrak. Ondo pasatuz kirola egitea da da zumba», azaldu dute.

Ez da izena eman beharrik egongo, guztiz doako saioa izango da, eta parte hartu nahi duten guztiek igandean 16:30erako Jose Antonio Agirre plazara azaldu besterik ez dute egin beharko, «hori bai, kirola egiteko arropak jantzita». Gustura eta gogoz agertzen diren herritarrek zumba gertutik ezagutzeko aukera izango dute bi irakasleen eskutik.

Askotan antolatu izan dute zumba saioa herriko hainbat festaren baitan, baina beti kutsu umoretsuarekin eta ez

kirol saio gisa. Ikuspuntu hori aldatu nahi dute Hernandezek eta Idoetak: «Horregatik antolatu dugu herri kirolen egun berean; zumbaren inguruan dauden mitoekin amaitu nahi dugu, herritarrek kirol gisa ikus dezatela, eta edonork egiteko modukoa dela jakin dezatela. Ondo pasatzea da helburua, dantza egitea, kirola egitea, huts egitea, barre egitea...». Hernandezen eta Idoetaren ikasle gazteenak ere gogotsu daude Sanjuandegiko emanaldirako: «Ilusioa dugu oholtza gainera igo eta dantza egiteko. Ea auzotarrak eta herritarrak etortzera animatzen

diren eta gurekin dantza pixka bat egiten duten».

Kirola eginez, gozatu

Bloke desberdinetan banatuko dute saioa: beroketa batekin hasiko dira, jarraian umeen txanda izango da, ondoren helduena, segidan gazteak arituko dira, bi talderen arteko gudu musikala ere egingo dute, eta berriro haurrak igoko dira taulara euskal musika dantzatzeko. «Jendeak duen ustearen aurka, zumba edozein musikarekin egin daiteke, eta horregatik, euskal musika sartuko dugu erakustaldian». Amaitzeko, bi irakasleek batera egingo dute saioa, eta lu-

zatze ariketak eginez agurtuko dute saioa. Taula gainera igotzen direnek ez ezik, bertaratzen diren herritarrek ere dantzatzeko aukera izango dute. «Dena, gainera, ondo pasatzen duten bitartean».


Izan ere, zumba lasaigarria da jende askorentzat. «Kirol Patronatuan eskaintzen ditugun saioetako ikasle askok esaten digutenez, egunerokotasuneko estresa eta arazoak alde batera uzteko bide bakarrenetakoa dute. Dena ahazten dute ordu-bete horretan. Hori ederra da, eta beraz, etor daitezela herritar guztiak, gozamina ziurtatua izango dute eta!», amaitu dute.

GUKA ZOZKETA

Azpeitiaguka.eus webgunean

Erantzun galderari ekainaren 3a aurretik, eta irabazi Gukaren udako produktu sorta eta Azpeitia Gukarako urtebeteko harpidetza digitala.

**Zein urtetan atera zuten
lehendabizikoz Mantangorri?**





AGENDA

Maiatzak 25, larunbata

Umeen Eguna

12:00. Umeen Egunean izena eman duten haurrak begiraleekin elkartuko dira, eta jolasak egingo dituzte.

14:00. Umeen auzo bazkaria.
15:30. Iago Magoren emanaldia.

Maiatzak 29, asteazkena

21:00. Bertso afaria izango da Sanjuandegiko Baigeran. Julio Soto eta Iker Zubeldia ariko dira kantuan.

Maiatzak 30, osteguna

19:00. Kantujira eta pintxo poteoa.

21:00. Mus Txapelketako izen-ematea.

22:00. Mus Txapelketa, Ongi Etorri erretegia.

22:00. Iluntze musikatuaren barruan, Sembrando Kaos eta Sheldons taldeek kontzertu bana eskainiko dute Jim Clark eta Garoa tabernen atarian.

Maiatzak 31, ostirala

Gazte Eguna

15:00. Kafea eta auzolana.

19:00. Mantangorriren ongietorria Jose Antonio Agirre plazan.

19:05. Kalejira buruhandiekin, erraldoiekin eta trikitilariekin.

20:00. Batukada, Zestoako taldearen eskutik.

21:00. Gazte afaria.

23:00. Jose Mari Orbegozoren

dantza eskolako kideen areto dantzen emanaldia.

23:00. Kontzertuak karpan: Mehatxuka, Jipoituak eta Laket.

Gainera, herriko DJak txosnan: House One, Jos_U, eta P4ul.

Ekainak 1, larunbata

Auzo Eguna

10:30. Xake Txapelketa.

11:00. Judo erakustaldia.

13:00. Udal Musika Bandaren kontzertua.

13:30. Triki-pintxo-poteoa.

15:00. Auzo bazkaria, Jose Antonio Agirre plazan.

17:00. Bingoa.

18:30. Txokolatada.

19:00. Elektrotxorongo, erraldoiak eta buruhandiak.

20:00. Parrillada, Kontseilu Sozialistaren eskutik.

20:00. X. Trikifree trikiti emanaldi berezia.

22:00. Kontzertuak: Street Wise eta Los Zopilotes Txirriaos.

Ondoren, Tinz DJaren emanaldia karpan.

Ekainak 2, igandea

06:00. Txokolatada.

07:00. Zezena eta jolasak izango dira Barrenetxe auzunean.

09:00. Salda.

12:00. Dantzari txikien emanaldia.

16:30. Zumba parte-hartzailea.

18:30. Herri kirol erakustaldia.

19:45. Boletoen zozketa.

20:00. Mantangorriren agur ekitaldia egingo dute Jose Antonio Agirre plazan.

LAGUNTZAILEAK:

- Lasa gozotegia
- Endika Arregi fisioterapia
- Iturria ile apaindegia
- Intxausti harategia
- Karmaña arraindegia
- Adats ile apaindegia
- Zutoin podologia
- Coviran denda
- Makibar fruta eta abar
- Haizea arropa denda
- Iris mertzeria eta drogeria
- Eguzki belardenda
- Goiatz ile apaindegia
- Txintxu gozotegia
- Errotaundi okindegia
- Aitzaki kirolak
- Loiola ile apaindegia
- Alabier iturgintza
- Gu ile apaindegia
- Asun ile apaindegia
- Lagunak elektrizitatea
- Artetxe Bastida farmazia
- Atsedon taberna
- Urkizu laneko arropa
- Urbistondo margoak
- Inka kafetegia
- Lopene harategia
- Osinazpi jatetxea
- Ongi Etorri erretegia
- Niza taberna
- Kantoi taberna
- Rocha's Choper taberna
- Jim Clark taberna
- Garoa taberna
- Erreka taberna
- Baigera II jatetxea
- Izaro taberna
- Haginpe taberna
- Mendata estudio grafikoa
- Marijose ile apaindegia
- Ukabi Group
- Urola Erdiko Kontseilu Sozialista
- Haujijijai Batzordea
- Urrestillako Festa Batzordea
- Vivero elkarte
- Loiolabide Zahar elkarte
- Iturri elkarte
- Azpeitiko Udala

URBISTONDO MARGOAK

ONDO PASATU JAIK!

Salbe Auzunea 35 behea • 20730 AZPEITIA • 943-81 57 81

info@urbistondomargoak.com

Artetxe-Bastida Farmazia

Azal-analisiak dermo aholkurako
Arrisku kardibaskularra neurtzea
Pastileroa prestatzea
Nutrizio zerbitzua

@artetxebastidafarmazia
688 69 98 88 - 943-81 19 49
Urbistarte 3, Azpeitia